

Garapenerako lankidetzak jarduerak onartu dira



Depositu baten eraikuntza San Beniton (El Salvador)

Urteko aurrekontuaren %1 garapenerako lankidetzara bideratzeko konpromisoari eutsiz, AMVISAKo Administrazio Kontseiluak honako proposamen hauek onartu zituen maiatzean:

- 225.000 €-ko diru kopurua, ur hornidura eta saneamenduko **lankidetzak proiektu espezifikotarako 2017ko udal deialdira** bideratuta.
- EUSKAL FONDOARI egindako ekarpen ekonomikoa, 75.000 €-koa, **“San Benito, Los Encuentros eta el Cortijon (El Salvador) edateko ura**

sartzeko”. AMVISAK kolaboratu egingo du bai proiektu horren gauzaperari egingo zaion jarraipen teknikoan, bai –gauzatu ondoren– hornidura zerbitzua administratzeko sistema hobetzeko aholkularitzan. Proiektuaren onuradunak 2.000 pertsona baino gehiago izango dira.

- Finantzaketa eta hitzarmen baten sinadura UNICEFekin, duela hiru urtetik hona **Etiopian dagoen muturreko lehortearen aurrean larrialdiko esku hartze** bat egiteko. Proposa-

mena Larrialdietarako Arabako Funtsera aurkeztu da eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Garapenerako Lankidetzak zerbitzuek eta Arabako Foru Aldundiak positiboki baloratu dute. Proposamena ur deposituak (10.000 litroko 10 depositu) eta arazteko pastillak ematean datza, horretarako behar den garraioa ahalbidetuz. Horrela, urari, saneamenduari eta kaltetutako komunitateetako higiegi faltari lotutako mehatxu larriekin elkartuta doazen hilkortasun eta gaixotze tasak jaisten lagundu nahi da. AMVISAKen ekarpen ekonomikoa 50.000 €-koa izango da.

AMVISAK 2017-2020 euskararen plan estrategikoa onartu berri du



AMVISAKo Euskara Batzordeak euskararen egoeraren diagnostikoa egin zuen otsaila eta martxoaren bitartean. Diagnostiko horretan hainbat arlo neurtu ziren, hala nola, irudi korporatiboa, kanpo harremanak, barne harremanak eta hizkuntzen kudeaketa.

Diagnostiko honetan 2013an egin zen BIKAIN ziuertagiriaren ebaluazioan ateratako hobekuntza arloak ere hartu dira kontuan. Orduan, AMVISAK zilarrezko BIKAIN ziuertagiria lortu zuen, gaur egun euskarri gehienetan ageri dena (webgunea, faktura...).

Egoera, oro har, ona bada ere, hainbat zer hobetu identifikatu ziren, bai zerbitzua ematerako orduan, bai langileen arteko harremanetan. Azken hori izango da datozen urteetako ardatza eta erronka nagusia: barne harremanetan euskararen erabilera handitzea eta euskaraz lan egiteko aukera bermatzea. Halaber, bezeroekiko harremanetan eragiten jarraituko dugu datozen urteetan, kalitatezko euskarazko zerbitzua eskaini ahal izateko hala nahi duten bezero guztiei.

Mehatxu ikusezin bati aurre eginez

Ondo amaitu da herritarren ohiturei eta kutsatzaile berriei buruz Egibiderekiko lankidetzan landutako esperientzia. Guztira, DBHko 1. eta 4. mailako, batxilergoko 1. mailako eta Lanbide Heziketako ziklotako 252 ikasleri zuzendutako 12 tailer izan dira, non bideo desberdinak ikusi eta hainbat dinamika eta esperientzia egin dituzten urarekin, kutsatzaile berriak zer diren, non ezkututzen diren eta “mehatxu ikusezin” horri aurre egiteko nola jardun jakiteko.

Egitasmoari amaiera emateko eta arazo honi buruz kontzientzia harraraztea ez dela hain zaila erakusteko, sare sozialen bidez ikus-entzunezko lehiaketa bat egitea proposatu zen, kartelen eta publizitate spoten bitartez beste maila eta ikastetxe batzuetako pertsonengan kontzientzia pizteko. Ekainaren bian, Egibiden landutako jarduketak errekonozitzeko ekitaldi bat izan zen, non aurkeztutako lanak saritu baitziren.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea:
info@amvisa-futura.org